**ADUNAKO UDALA**
(GIPUZKOA)

## EUSKARA, ATERA HADI ADUNAKO PLAZARA!

Aduna herri txiki eta euskaldun gisa ikusi izan dugu beti, baina, hala al da benetan? Iazko urte amaieran euskararen kale-erabileraren neurketa egin zuten Adunan, eta zer pentsa ematen duten datuak azaldu ziren.

Gauzak bere horretan utziz gero, arriskua dago euskarak atzerakada handia izateko, eta Adunako herrigunean tokia galtzen joateko. Konponbideak jartzea gure esku dago, eta, horretarako, UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) laguntzeko prest azaldu zaigu. 2 orduko 2 tailer antolatu ditu, gu guztion artean ikusteko arazoa non dagoen eta konponbideak bilatzen saiatzeko.

Tailerrak herritar guztiei zabalik daude, bai euskaldun zaharrei, bai euskaldun berriei, bai euskara jakin ez arren euskararen alde zerbait egin nahi dutenei ere. Jarri alea euskararen alde, eta euskara bizi bedi osasuntsu Aduna osoan.

**Egunak**: ekainak 2 eta ekainak 9, astearteak

**Ordutegia:** 17:30etik 19:30era

**Tokia:** Adunako kultur aretoa

Parte hartu nahi izanez gero, eman izena mirenaburuza@hotmail.com helbidean edo 605747764 telefono-zenbakian.

## OILASKO BILKETA

Aurtengo herriko jaietarako oilasko bilketa berreskuratzea proposatzera gatoz.

Eguna Abuztuaren 14ean izango da. Asmoa, bilketa hori, garai bateko ohitura zaharrei jarraituz egitea da.

Honen gain hitz egiteko eta erabakiak hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, batez ere, 18 urteak beteta dituzten adindunei.

Bilera **maiatzaren 27an**, asteazkena, arratsaldeko **8etan Udal Kultur** aretoan.

Antolatzaileak

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna
Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net

AIZTON Zerbitzue

# Jubilatuen irteera
# Ekainaren 13an,larunbata.

**EGITARAUA:**

San Antonio eguna ospatzeko Urkiolara joango gara. Hemen, goiza pasako dugu eta Durangora abiatuko gara bazkaltzera. Arratsaldean, Durango bisitatuko dugu.

**MENUA:**

Antzara gibela mahaspasa eta intxaurrezko ogiarekin
Urdaiazpiko iberikoa
Etxeko-kroketak
Txahala salteatua patata frijituekin
Etxeko pantxineta izozkiarekin

Kafe, Ardoa, Ura...

**PREZIOA:**
**30€**

**Izenemateko epea: maiatzak 29, (ostirala)**
**Aiztondoko bulegoetan ☎ 943693930**

***Irteteko ordua:***
*Larraul: goizeko 8:00etan*
*Alkiza: goizeko 8:15etan*
*Aduna: goizeko 8:45etan*
*Zizurkil: goizeko 9:00etan*
***ORDAINKETAK LIBURUTEGIETAN***



2015/05/20

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea

# 7 EGUNEKO GAZTE UDALEKUAK 2015

*LEKUA: LERATEKO KANPINA*

*DATA: uztailaren 13tik 19ra*

*( biak barne)*

*PREZIOA: 85,00€*

***IZENA EMATEKO EPEA:***

***maiatzaren 18tik 29ra***

*( biak barne)*



*Gipuzkoako 5 udalerrik, Foru Aldundiaren laguntzarekin 11- 17 urte bitarteko gazteentzako udalekuak antolatuko ditugu*

*Oraingoan, gazteak 7 egun hauetan Lerateko kanpinean bilduko dira, aktibitate desberdinez gozatzeko, hala nola pedalo, belauntziak...*

# UDALEKU IREKIAK 2015



**Jarduerak: jolasak, eskulanak.**

**Irteerak: Aritzalekura gaua pasatzera,igerilekura, parkeetara.**

## Adina:

Ludoteka: 2010-2011 urte bitartean jaiotakoak, biak barne
Udalekuak: 2009-2003 urte bitartean jaiotakoak, biak barne.
Udalekuetakoak beste herrietakoekin batera ibiliko dira.

Egunak:
Ekainak 24- Uztailak 24
Ordutegia:
9:30-13:00
65€. Bigarren edota hurrengo seme-alabagatik 55€
9:00-13:30
90€. Bigarren edota hurrengo seme-alabagatik 80€
(ordutegi honetarako, herri bakoitzean gutxieneko ume kopuru bat osatu behar da)

Informazioa:
Aiztondoko bulegoetan tel.:943693930 (goizez)
Ezinbestekoa da izena emateko orrian kontu korrontearen zenbakia jartzea. Izena emateko orriak liburutegian izango dituzue.

**Izena emateko epea: maiatzak 25**

**8- 12 urte arteko haurrek piraguismoa egiteko aukera izango dute**
**PREZIOA: 25,00€**





Muñoa kalea, 36 Behea • Tel. 943 69 39 30 • Fax 943 69 39 33 • 20159 ZIZURKIL (Gipuzkoa)